Reverse

EUROPEAN PROJECT
TO PRESERVE BIODIVERSITY

# Por una Euskadi **viva**

*Carta de la Biodiversidad de Euskadi*


European Union
European Regional Development Fund

INTERREG IVC

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Presentación

La **biodiversidad** es la amplia variedad de la vida en la Tierra, aquello que hace a nuestro planeta especial en el universo. La biodiversidad es la base de la existencia del ser humano en la tierra, constituyendo un **capital natural y cultural** que comparte con el resto de seres vivos del mundo. Además de constituir la base de nuestros recursos naturales y de regular el clima, las personas estamos ligadas cultural y emocionalmente a la biodiversidad, que constituye una fuente de calidad de vida y bienestar, y aporta sentido a nuestras vidas.

La biodiversidad se está perdiendo a un ritmo sin precedentes en la historia de la Tierra. Las causas que provocan esta pérdida no van a atenuarse o desaparecer en las próximas décadas si no se toman medidas decididas y urgentes, si no se cambian los **modelos de desarrollo y consumo,** especialmente en las sociedades más ricas del planeta.

Por otra parte, la conservación de la biodiversidad es **compatible** con el desarrollo social y económico; es más, representa una oportunidad para avanzar hacia un desarrollo sostenible en un contexto de crisis mundial.

La conservación de la biodiversidad es responsabilidad de todas las personas, empresas, entidades, administraciones. Es, además, una responsabilidad intergeneracional, pues nuestra generación no puede basar su bienestar en la destrucción del capital natural, que es **patrimonio común** de todas las personas, tanto de las que habitamos el planeta en el presente como de las que lo han habitado y las que lo habitarán en el futuro.

# Nuestra visión para la Biodiversidad de Euskadi en el medio plazo

Los objetivos y actuaciones clave que propone esta Carta de la Biodiversidad de Euskadi surgen de una mirada positiva y compartida acerca de la relación entre la sociedad vasca y la biodiversidad, y están encaminados a alcanzar un escenario concreto.

En este escenario positivo, la sociedad en general, así como las administraciones, agentes sectoriales, promotores y profesionales, perciben la biodiversidad como un patrimonio común, fuente de riqueza para la sociedad, que contribuye a mejorar la calidad de vida y el bienestar de las personas, y se comprometen realmente con su conservación, integrándola en su quehacer diario, de modo que cambie el modelo de sociedad de consumo actual.

Así pues, los firmantes de esta Carta...



# Nos fijamos los siguientes objetivos y actuaciones clave



- Lograr un modelo de sociedad realmente sostenible, que mantenga un adecuado equilibrio con la biodiversidad.
- Facilitar a todas las personas los medios para entender qué es la biodiversidad, por qué es esencial para la vida, y el modo en el que repercute en la calidad de vida de la sociedad.
- Conocer y reconocer el valor de la biodiversidad en nuestra vida cotidiana, y demandar al conjunto de la sociedad que haga explícito ese reconocimiento.
- Sensibilizar, educar e informar a las personas acerca del impacto actual de la población y del consumo de los recursos sobre la biodiversidad.
- Practicar el consumo responsable como medida para reducir la presión sobre los recursos naturales en general, y la biodiversidad en particular.

## COMO SOCIEDAD

*Adquirimos el compromiso de dar, tanto a través de pequeños gestos individuales como mediante actuaciones colectivas, pasos firmes hacia un modelo de sociedad realmente sostenible, que sea capaz de compatibilizar las actividades económicas con la conservación de los beneficios y servicios que la biodiversidad genera al conjunto de la sociedad. Reclamamos que la biodiversidad tenga un lugar prioritario en el debate social y en la agenda política.*

- Reclamar que se cumplan las normas y planes establecidos que afecten a la biodiversidad y, fundamentalmente, en aquellos sectores con incidencia directa en el consumo de recursos naturales, incluidos el suelo, el aire y el agua.
- Demandar que todas las decisiones de las administraciones incorporen en sus procedimientos y cálculos a los costes y beneficios ambientales.
- Exigir transparencia en la gestión de los recursos económico-públicos.
- Reclamar que los precios de los productos reflejen la finitud de los recursos y las externalidades ambientales, tanto positivas como negativas, ligadas a los mismos.
- Apoyar el desarrollo en investigación, tecnología e innovación.
- Impulsar la aplicación de tecnologías limpias.

# CON RELACIÓN A LA AGRICULTURA Y A LOS PRODUCTOS AGROALIMENTARIOS

***Reconocemos activamente los beneficios que la agricultura genera al conjunto de la sociedad y nos comprometemos firmemente con una agricultura sostenible, que minimice los impactos negativos de algunas prácticas agrícolas sobre la biodiversidad. Consideramos que las personas que se dedican a la agricultura custodian la biodiversidad agraria, así como la cultura y el conocimiento asociados a la misma, y reclamamos que todo ello sea protegido como patrimonio común.***



- Lograr que las personas responsables de la política y de la producción agrarias, junto con las personas consumidoras, sean perfectamente conscientes de la importancia de la biodiversidad, y de la huella que dejan sobre la misma todas sus decisiones.
- Establecer que la generación de resultados positivos para la biodiversidad sea una condición para que planes y proyectos agroforestales reciban financiación pública.
- Realizar un seguimiento de los valores de la biodiversidad y de su evolución desde la ordenación y planificación agroforestal.
- Promocionar la comercialización de alimentos y productos agrarios procedentes de variedades y razas locales mediante estrategias y acciones de marketing específicas y coordinadas, y promover las zonas agrícolas de alto valor natural como medio para conservar la biodiversidad, mantener los paisajes rurales y vitalizar el desarrollo rural.
- Rechazar la introducción de organismos modificados genéticamente (OMG) en el medio ambiente.
- Incorporar información sobre la procedencia, forma de producción e impacto sobre la biodiversidad en el etiquetado de los productos agrarios.
- Comunicar a las personas responsables de la toma de decisiones en el ámbito agroforestal y de la producción agroforestal la influencia de sus decisiones y actividades sobre la biodiversidad.
- Sensibilizar y formar en materia de biodiversidad agraria a todos los agentes relacionados con la práctica agroforestal, adaptando los contenidos a su mirada sobre el territorio.
- Proteger la biodiversidad de interés agrario, creando un programa para la conservación de los recursos genéticos agrarios, tanto en bancos de genes (*ex-situ*) como en las propias explotaciones agrarias (*in-situ*), y apoyando redes de agentes agrarios para el intercambio de conocimiento.
- Conservar el patrimonio cultural y el conocimiento asociados a la agrobiodiversidad.

# EN RELACIÓN CON EL TURISMO

*Apostamos decididamente por un turismo sostenible, que contribuya activamente a la conservación de los valores naturales del territorio y que sirva de vehículo para su conocimiento, su puesta en valor y la sensibilización acerca de su importancia. Reconocemos que el turismo debe tener un efecto positivo sobre las comunidades locales, particularmente en el mundo rural, donde juegan un papel decisivo en la conservación de las funciones ecológicas y los valores del paisaje.*



- Potenciar los productos turísticos que aumenten la sensibilización y el conocimiento sobre la biodiversidad, contribuyan a su conservación, y tengan un impacto positivo sobre las poblaciones locales.
- Gestionar y aprovechar los recursos naturales utilizados por el turismo únicamente dentro de los límites ecológicos seguros que permitan conservar la biodiversidad.
- Sensibilizar a las administraciones en materia de turismo, a agentes y promotoras turísticas y a la sociedad en su conjunto respecto a la biodiversidad y su importancia, y lograr que se comprometan con su conservación.
- Integrar a la biodiversidad en la toma de decisiones acerca del turismo, realizando un seguimiento de la influencia del turismo sobre la biodiversidad y su evolución.
- Lograr una óptima coordinación interinstitucional e intersectorial en relación con los objetivos relacionados con la biodiversidad y el turismo.
- Crear los proyectos y productos turísticos con base en la naturaleza o la biodiversidad de forma tal que ésta se ponga en valor y se sensibilice a las personas turistas sobre sus valores.
- Consolidar los sistemas de calidad, en particular la Carta Europea de Turismo Sostenible, para los servicios turísticos en los Espacios Naturales Protegidos donde se prevean usos turísticos.
- Destinar parte de los ingresos provenientes del turismo a proyectos de conservación activa de la biodiversidad.
- Reforzar la percepción de Euskadi como un destino turístico de alta calidad y sostenible.





# CON RELACIÓN A LA PLANIFICACIÓN TERRITORIAL



***Nos comprometemos sin reservas con una planificación territorial sostenible, que integre a la biodiversidad en todos sus procesos y que tome conciencia de ser una de las herramientas más potentes para frenar el deterioro de la biodiversidad. Apostamos por una planificación territorial que no pierda ninguna oportunidad de dotar al territorio de coherencia, conectividad y funcionalidad desde el punto de vista ecológico y consideramos que para ello resulta imprescindible que ponga límites al consumo de suelo.***

- Integrar efectivamente la biodiversidad en todos los procesos de planificación territorial, fomentando el intercambio de información, y promoviendo el uso de estándares, metodologías y herramientas comunes.
- Comunicar a las personas responsables de la toma de decisiones, al personal técnico y a la población en general, información adecuada respecto a la biodiversidad, de forma que sea correctamente tenida en cuenta en la planificación territorial.
- Contribuir decisivamente desde la planificación territorial a que la destrucción y fragmentación de hábitats deje de ser la principal causa de pérdida de biodiversidad en Euskadi.
- Establecer que la generación de resultados positivos para la biodiversidad sea una condición para que planes y proyectos del ámbito de la planificación territorial reciban financiación pública.
- Mejorar sustancialmente el conocimiento sobre la biodiversidad, sus elementos y sus necesidades de conservación.
- Identificar e integrar en las redes de Áreas Protegidas a todas las áreas importantes para la biodiversidad.
- Concretar suficientemente las herramientas para la conservación de la biodiversidad, aplicarlas de forma efectiva y respetarlas estrictamente, incorporándolas a la planificación territorial y realizando un seguimiento y evaluación de su contribución a la conservación de la biodiversidad.
- Lograr que las redes de Áreas Protegidas sean coherentes y funcionales, y que les sea aplicada una gestión que se base en el aprendizaje de los aciertos y errores, para lo que son necesarios sistemas de planificación y gestión que puedan adaptarse al cambio mediante el seguimiento y la evaluación continua.
- Crear una Infraestructura Verde en Euskadi, a fin de mantener la coherencia y conectividad ecológica más allá de las redes de Áreas Protegidas, y garantizar los bienes y servicios de los ecosistemas para la sociedad actual y para las generaciones venideras.
- Incluir límites al consumo de suelo en la planificación territorial.

Reverse
EUROPEAN PROJECT
TO PRESERVE BIODIVERSITY

# LA FIRMA DE LA CARTA

Esta carta se ha elaborado en el marco del proyecto REVERSE de cooperación interregional para la conservación y el fomento de la biodiversidad en Europa. En Euskadi, representantes de todos los sectores y agentes a los que va dirigida la carta han participado en su elaboración.

El Gobierno Vasco invita a todas las entidades, organizaciones, instituciones y personas que tengan interés en la conservación de la biodiversidad a sumarse a esta iniciativa, adhiriéndose a la Carta de la Biodiversidad de Euskadi.

Firmando la presente Carta de la Biodiversidad de Euskadi expreso mi acuerdo con sus objetivos y me comprometo, a título individual y/o en representación de una organización, a llevar a cabo actuaciones dirigidas a revertir la pérdida de la biodiversidad.

Nombre:

Organización:

Firma

Por favor, envíe esta página firmada a la dirección electrónica de Reverse en Euskadi, **reverse-euskadi@ej-gv.es**

Más información en **www.euskadi.net/reverse** y en **www.reverse.aquitaine.eu** /. Proyecto cofinanciado por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER), dentro del Programa INTERREG IVC.

European Union
European Regional Development Fund

INTERREG IVC

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Reverse

EUROPEAN PROJECT
TO PRESERVE BIODIVERSITY

# Euskadi **bizi** baten alde

*Euskadiko Biodibertsitatearen Karta*

European Union
European Regional Development Fund

INTERREG IVC

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Aurkezpena

Lurreko bizitza-mota guztiek osatzen dute **biodibertsitatea,** unibertsoan gure planetari berezitasuna ematen diotenak. Biodibertsitatea gizakia lurrean izatearen oinarria da, munduko beste bizidun guztiekin partekatzen dugun **natur eta kultur ondarea.** Gure natur baliabideen funtsa eta klimaren erregulatzailea izateaz gain, pertsonak emozioen eta kulturaren bitartez biodibertsitateari lotuta gaude, eta berau bizi-kalitatearen eta ongizatearen iturri da, gure bizitzari zentzua ematen diona.

Biodibertsitatea lurraren historian inoiz eman ez den abiaduran ari da galtzen. Galera hori eragiten duten arrazoiak ez dira hurrengo hamarkadetan ahulduko, ezta desagertuko ere, lehenbailehen neurri erabakigarriak hartu ezean, batez ere, planetako gizarte aberatsenek **garapen-eta kontsumo-ereduak** aldatzen ez badituzte.

Bestalde, biodibertsitatearen zaintza garapen sozial eta ekonomikoarekin **bateragarria da;** are gehiago, mundu mailako krisi-egoera honetan garapen iraunkorra lortzeko aukera eskaintzen digu .

Biodibertsitatearen zaintza pertsona, enpresa, erakunde eta administrazio guztien ardura da. Gainera, belaunaldien arteko ardura ere bada, gure belaunaldiak ezin baitu bere ongizatea natur kapitalaren hondamendian oinarritu, kapital hori pertsona guztien **komuneko ondarea** baita, bai gaur egun planetan bizi garenona, baita bizi izan diren eta bizi izango direnena ere.

# Euskadiko Biodibertsitatearen gainean epe ertainerako dugun ikuspegia

Euskadiko Biodibertsitatearen Karta honek proposatzen dituen jomugak eta ekintza gakoak euskal gizarteak eta biodibertsitateak duten harreman estuaren eta elkarren beharraren gaineko begirada baikor eta partekatuaren ondorio dira, eta egoera zehatz bat lortzea dute helburu.

Egoera aproposa horretan, bai gizarteak berak, baita administrazioek, arlokako eragileek, sustatzaileek eta profesionalek ere, argi dute biodibertsitatea guztion ondarea eta gizarterako aberastasun-iturri dela, bizi-kalitatea eta pertsonen ongizatea hobetzen laguntzen duena. Hori dela eta, biodibertsitatea haien eguneroko eginkizunetan kontuan hartuz, berau zaintzeko konpromisoa hartzen dute; horrela, egungo kontsumo-gizartearen eredua aldatu ahal izango baita.

Beraz, Karta honen sinatzaileok...



# Honako helburu eta funtsezko ekintza hauek ditugu xede

# GIZARTEKIDEAK GAREN ALDETIK

***Hitza ematen dugu, dela bakarkako ekintza xumeen bidez, dela talde-ekimenen bidez, urrats irmoak emango ditugula, benetan iraunkorra izango den gizarte-eredua lortzeko, jarduera ekonomikoak eta biodibertsitateak gizartearentzat sortzen dituzten onurak eta zerbitzuak bateragarri egingo dituen gizarte-eredua. Gizarte-eztabaidan eta politikoen agendan biodibertsitateak lehentasuna izan dezala eskatzen dugu.***



- Benetako gizarte-eredu iraunkorra lortuko da, biodibertsitatearekin egoki orekatua egongo dena.
- Baliabideak pertsona guztien eskura jarriko dira, biodibertsitatea zer den, bizitzarako zergatik den ezinbestekoa eta gizartearen bizi-kalitatean nola eragiten duen jakin dezaten.
- Ezagutu eta onartu egingo dugu gure eguneroko bizitzan biodibertsitateak duen balioa, eta gizarte osoari eskatuko zaio argi adierazteko.
- Pertsonak informatu, sentsibilizatu eta hezi egingo dira, gaur egungo biztanleriak eta baliabideen kontsumoak biodibertsitatean duten eraginaren inguruan.
- Kontsumo arduratsuari ekingo zaio, baliabide naturaletan, oro har, eta biodibertsitatean, bereziki, eragiten dugun presioa moteltzeko.
- Aldarrikatu egingo da bete daitezela biodibertsitateari eragiten dioten egungo arauak eta planak, batez ere natur baliabideei (lurzorua, airea eta ura barne) zuzenean eragiten dieten arloei dagozkienak.
- Administrazioei eskatuko zaie, erabakiak hartzerakoan, haien prozedura eta kalkuluetan ingurumen-kostu eta -onurak sar ditzatela.
- Ekonomia-baliabide publikoen kudeaketan gardentasuna exijituko da.
- Produktuen salneurriek baliabideei lotutako ingurumenaren kanpo-eraginak (positiboak zein negatiboak) isla ditzatela eskatuko da, baita baliabide horiek agorgarriak direla ere.
- Ikerketa-, teknologia- eta berrikuntza-arloen garapena sustatuko da.
- Teknologia garbiak aplikatzea bultzatuko da.

# NEKAZARITZARI ETA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEI LOTUTA

***Benetan hartzen ditugu aintzat nekazaritzak gizarte osoarentzat sortzen dituen onurak, eta konpromiso sendoa hartzen dugu nekazaritza jasangarriaren alde, nekazaritza-praktika batzuek biodibertsitatean duten eragin negatiboa murriztuko duen nekazaritza baten alde. Nekazariek nekazaritza-biodibertsitatea zaintzen dutela uste dugu, baita horri lotutako kultura eta ezagutza ere, eta ondare komuna diren aldetik guzti horiek babesteko eskatzen dugu.***



- Nekazaritza-politikaren eta -ekoizpenaren arduradunek zein kontsumitzaileek beren erabakiek biodibertsitatean zer-nolako aztarna uzten duten ikus dezaten lortuko da, baita biodibertsitatearen beraren garrantzia ikus dezaten ere.
- Finantziazio publikoa jasotzeko, funtsezko baldintza izango da nekazaritza- eta baso-proiektuek biodibertsitatean eragin positiboa izatea.
- Biodibertsitatearen balioen eta berauen eboluzioaren jarraipena egingo dute nekazaritzaren eta basoen antolamenduak eta plangintzak.
- Bertako barietate eta arrazetatik eratorritako nekazaritza-elikagai eta -produktuak merkaturatzea bultzatuko da, estrategia eta marketing-ekimen koordinatu eta berariazkoen bidez; horrez gain, natura-balio handiko nekazaritzako lurrak sustatuko dira, zertarako eta, biodibertsitatea zaindu, landa-paisaiak mantendu eta landa-garapena bizkortzeko.
- Uko egingo zaio genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) ingurumenean sartzeari.
- Jatorriari, ekoizteko erari eta biodibertsitatearen gaineko inpaktuari buruzko informazioa agerian jarriko da nekazaritza-produktuen etiketetan.
- Nekazaritza- eta baso-eremuan erabakiak hartzeko ardura dutenei eta nekazaritza- eta baso-ekoizpenean dihardutenei argi adieraziko zaie haien erabaki eta ekimenek zer-nolako eragina duten biodibertsitatean.
- Nekazaritza- eta baso-praktiketan jarduten duten guztiak sentsibilizatu eta prestatu egingo dira nekazaritza-biodibertsitateari buruz, eta edukiak egokitu egingo dira lurraldeari buruz duten ikuspegira.
- Nekazaritzaren aldetik interesa duen biodibertsitatea zaindu egingo da; horretarako, programa bat sortuko da, nekazaritza-baliabide genetikoak gordetzeko, bai genebankuetan (*ex-situ*), bai nekazaritza-ustiategietan bertan (*in-situ*), eta nekazaritza-eragileen sareak sustatuko dira, ezagutzak elkar trukatzeko.
- Nekazaritza-biodibertsitateari lotutako kultura-ondarea eta ezaguera zaindu egingo dira.

# TURISMOAREN HARIRA

***Turismo jasangarriaren alde egiten dugu, irmoki, lurraldearen natura-balioak zaindu eta ezagutaraziko dituen turismoaren alde, elementu horien balioa agerian jarri, eta haien garrantziaz sentsibilizatuko duen turismoaren alde, hain zuzen. Argi dugu turismoak eragin positiboa izan behar duela bertoko komunitateetan, landa-komunitateetan bereziki, zeren eta, landa-eremuetako biztanleak erabakigarriak baitira paisaiaren balioak eta funtzio ekologikoak mantentzeko.***



- Biodibertsitatea ezagutarazi eta hari buruz sentsibilizatuko duten turismo-produktuak bultzatuko dira, biodibertsitatea zaintzen lagunduko dutenak eta bertoko komunitateetan eragin positiboa izango dutenak.
- Turismoak erabiltzen dituen natura-baliabideak muga ekologiko seguruen barruan kudeatu eta ustiatuko dira, hau da, biodibertsitatea kontserbatzea ahalbidetzen duten mugen barruan.
- Turismoaren arloko administrazioak, eragileak eta sustatzaileak, bai eta gizarte osoa ere, biodibertsitatearen garrantziaz sentsibilizatuko dira, eta hura kontserbatzeko konpromisoa har dezaten lortuko da.
- Kontuan hartuko da biodibertsitatea turismoaren inguruko erabakietan, eta biodibertsitatean eta haren eboluzioan turismoak duen eraginaren jarraipena egingo da.
- Erakunde eta arloen arteko koordinaziorik hoberena lortuko da, biodibertsitateari eta turismoari lotutako helburuei dagokienez.
- Naturan edo biodibertsitatean oinarritutako turismo-proiektuek eta-produktuek biodibertsitatearen balioa agerian jarriko dute eta turistak haren garrantziaz ohartaraziko dituzte.
- Turismo-erabilerak aurreikusten diren Natura-Gune Babestuetako turismo-zerbitzuetan, kalitate-sistemak finkatuko dira, bereziki, Europako Turismo Jasangarriaren Karta.
- Turismotik datozen diru-sarreren zati bat biodibertsitatearen kontserbazio aktiboko proiektuetarako erabiliko da.
- Sendotu egingo da Euskadi turismo-helmuga jasangarria eta kalitate handikoa denaren pertzeptzioa.





# LURRALDE-PLANGINTZAREN INGURUAN



***Konpromiso sendoa hartzen dugu lurralde-plangintza jasangarriarekin, prozesu guztietan biodibertsitatea txertatuko duena, haren galera geldiarazteko tresna indartsuenetakoa bera dela jabetuko den lurralde-plangintzarekin, hain zuzen. Lurraldeari koherentzia, lotura eta funtzionaltasun ekologikoa emateko aukera guztiak aprobetxatzen dituen lurralde-plangintzaren aldekoak gara, eta hori lortzeko lurzoruaren erabilerari mugak jartzea ezinbestekoa dela uste dugu.***

- Biodibertsitatea egoki txertatuko da lurralde-plangintzaren prozesu guztietan; horretarako, informazioa elkartrukatzea sustatuko da eta estandar, metodologia eta tresna komunak erabiltzea bultzatuko da.
- Erabakiak hartzeko ardura dutenei, teknikariei eta, oro har, gizarte osoari helaraziko zaie biodibertsitateari buruzko informazio egokia, kontuan izan dezaten lurralde-plangintzan.
- Lurralde-plagintzak laguntza erabakigarria emango du habitat-zatitzea eta -suntsitzea Euskadin biodibertsitatearen galera ekartzen duten arrazoi nagusiak izan ez daitezen.
- Finantziazio publikoa jasotzeko, funtsezko baldintza izango da lurralde-plangintzarekin lotutako planek eta proiektuek biodibertsitatean eragin positiboa izatea.
- Nabarmen hobetuko da biodibertsitateari, hura osatzen duten elementuei eta haren kontserbazio-beharrei buruzko ezaguera.
- Biodibertsitaterako garrantzia duten gune guztiak identifikatu eta Gune Babestuen sareetan sartuko dira.
- Ondo zehaztuko dira biodibertsitatea zaintzeko tresna eta baliabideak, eta modu eraginkorrean aplikatu eta oso-osorik beteko dira; tresna horiek lurralde-plangintzan sartuko dira, eta biodibertsitatea zaintzen nola laguntzen duten jarraitu eta ebaluatuko da.
- Gune Babestuen sareak koherenteak eta funtzionalak izan daitezen lortuko da, eta ondo egindakoetatik eta akatsetatik ikasitakoan oinarritutako kudeaketa aplikatuko zaie; horretarako, beharrezkoak dira, jarraipen eta ebaluazio jarraituaren bitartez, aldaketara egokituko diren planifikazio- eta kudeaketa-sistemak.
- Euskadin Azpiegitura Berdea sortuko da, zertarako eta, koherentzia eta lotura ekologikoa Gune Babestuen sareetatik harago mantentzeko, eta ekosistemek hornitzen dituzten ondare eta zerbitzuak gaur egungo gizartearentzat eta datozen belaunaldientzat bermatzeko.
- Lurralde-plangintzan mugak jarriko zaizkio lurzoruaren kontsumoari.

Reverse
EUROPEAN PROJECT
TO PRESERVE BIODIVERSITY

# KARTAREN SINADURA

Karta hau Europan biodibertsitatea zaindu eta sustatzeko helburua duen eskualdeen arteko lankidetzarako REVERSE proiektuaren baitan egin da. Euskadin, karta zuzendu zatzaizkien sektore eta eragile guztietako hainbat ordezkarik parte hartu dute berau idazteko lanetan.

Eusko Jaurlaritzak gonbita luzatzen die biodibertsitatea zaindu nahi duten erakunde eta herritar guztiei ekimen honekin bat egin eta Euskadiko Biodibertsitatearen Karta sina dezaten.

Euskadiko Biodibertsitatearen Karta hau sinatuta, adierazten dut bere helburuekin ados nagoela, eta, neure izenean edota erakunde baten ordezkari gisa, konpromiso hartzen dut biodibertsitatearen galera geldiarazteko duten ekimenak aurrera eramateko.

Izena:

Erakundea:

Sinadura

Mesedez, orrialde hau sinatu ondoren Reverseren Euskadiko posta elektronikora bidal ezazu, **reverse-euskadi@ej-gv.es**

Informazio osagarria beha daiteke **www.euskadi.net/reverse** eta **www.reverse.aquitaine.eu** / webguneetan. Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) batera finantzatutako proiektua, INTERREG IVC Programare baitan.

European Union
European Regional Development Fund

INTERREG IVC
INNOVATION & ENVIRONMENT
REGIONS OF EUROPE SHARING SOLUTIONS

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO